GARILLA
21
Igandea
Bilbao, 1935

EUZKADI

ARPIDE-SANEURRIJA
Bilbao'kua ... ... 9,00 Irko. Iru llez
Bilbao'atazkua.. 11,25 " "
Idazki-Itunmena 62,00 " urtez
Atzarrijetakuak 112,50 " "

Beldayen itunduba

XXIIIurtia | Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17,1.º | 234 Idazkutxa | 17.810 Urrutizkiña | 7.04 Azenbakija

Egunekua

1876'gko. garillan 21'kna.

¡Ta, ta! ¡Andoni!

—Ixi... Ate-joka dabiltz, ama, ta Andoni'ri dei-dagitse — Andertxu txikijak esan dau.

—Entzun yuat, seme-ama samindubȧk erantzun dautso—; itxaroten nayuan, atera eldu duan aŕotz ori, urteoro etoŕi oi -yatak-eta.

—Ezaguna yatzu orduban.

—Ezaguna yatak, iñoz ezagutu ixan ezpa-nayuan, oba ixango zuan baña.

—¿Zelan deritxo, ama?

—Garilan 21'kaŕenaren ixenaz ezagutzen yuaguk, eta 1876'gko. lagija esaten yautsek. Gauŕ yozak urtiak; 59 urte.

—Ata baño gastiagua da orduban; ¿ezta, ama?

—Bai, seme, aŕa baño gastiagua dok, baŕa ire ama baño be.

Eskeŕak, oŕeri, ire anaya saŕema, ufengua ta bestia be, atian yuagun aŕotz ankeŕ ori otseinduten atzeŕiratu barik geratu zuazan.

Nire seme gustijen zoritxaŕa softu yuan egun baten, baña, orain Andoni'ri deika yaguan aŕotz ori jayo zuan.

Eta jayo zuaneko, ugutzau-egin yuen, eta "1876'gko. garilan 21'kaŕeneko lagija" ixentzat ezaŕi.

Lagijori, nire semiak jopu biuŕtuteko jayo zuan, nire seme kutuntxubak atzeŕiko otsein egiteko: ¡Nire sendi edeŕa sakabanatu, ta nire magal - petik igesika iminteko!

Olo-lokearen egapeko txiĩatxubak eŕpe zoŕotzetan aŕtuta eruan oi-yuauzan mirotzaren antzian nire sendiratuten dok, eta etxeko semerik leŕdenena ta arorik onenekua aŕtuta eruaten yaustak.

Lengo urtian, Markelin eruan yaustean; auŕeraukuan, Iñaki, ta beste asko ta asko.

Orain euk entzun dautsekan lez, Andoni'ren bila yatoŕk. Uŕengo uŕtian Mikel eruango yaustak, eta bestian i, ene bijotzeko Andertxu kutunori. Nire zorija baño txaŕagorik, ¿nok ixateko? Ama ixan ezpa-nitxuan, semerik ena-yuan ixango, ezta seme-eske iñungo aŕotzik ateratu be.

Baña Goikua'k, ama-egin ninduken; semiak emon yausteazan, nire poza ta zorijona zuazan seme berezijak.

Goikua'k neuretzako bakaŕik emon ixan yausteazan semiok ene magalpetik urten barik bixi zuazanaŕtian, ludiko ama gustijen aŕtian zoruntsubena ixan nitxuan.

Baña, gero, aĩatu dauatan lagija bide dala, aŕotzak etxian saŕtuta eurenak bai -liran neure semiak aŕotzen otsein eruaten asi yatakazanian, lengo zorija, zoritxaŕ biuŕtu yatakean: ludiko ama gustijen aŕtian zoritxaŕekuena biuŕtu nintxuan.

—¿Eztozu entzuten, ama? Ostera be atia jo dau, ta ¡Andoni! deĩu.

—Entzuten yuat, seme. Baŕiro be deĩuko yok, eta Andoni aŕtuta eruan aŕte eztok ixilduko.

—Etxian eztagola esango dautsagu, ama.

—Bilatu dagidala erantzungo yaustak.

—Nora juan dau eztakigula, esango dautsagu.

—Zemaĩu-egingo gindukezak; zigoŕa erakutsiko leuskiguk, eta zoritxaŕari begira, negaŕez iminĩ.

—Beraz, eztago, aŕotz ori, Andoni barik atetik bidaltzeko biderik, ama.

—Bai, ba-yagok. Baña, ez, ik oraňaŕte esan duazan indaŕ bako atxakijokaz bakaŕik. Aŕotz ori atetik jauŕti al-ixateko, beste bide batzuk aŕtu biaŕ yuek; orain 39 urte ontzat emon ixan yuen lagi ankeŕ ori deuseztuta lagako yuezan bidiak.

—¿Zeintzu bide dira, bide oŕeik, ama?

—Abeŕi-bidiak, seme. Ene euzko-seme gustijak Jel-ikuŕinpian batutia. Nire zoritxaŕa ekaŕi yuenak; oŕ atian Andoni'ri deika yaguan aŕotz oŕeri urteoro ene etxeko atietara etoŕteko eskubidia emoten yautzen lagija egiten lagundu yuenak be, ba, ene semietariko batzuk ixan zuazan.

Ni ezespetuten asi zuazan: niri kaltiak -kalte ekaŕijaz, atzeŕiko ama, eurena eztuan ama, amatzat aŕtuten.

¡Eskaŕ txaŕeko semiak...! Nire altzuan ikasi yuen euzkera edeŕa, ezestu egin yuen, eta atzeŕiĩaŕen izkerea ikasi.

Seme asko nayuazan... Asko ta bulaŕtsubak, eta bai abeŕtzale zintzuak be... Aŕigoŕiaga, Gordexola, Mungia, Otxandijano... ¿Gomutetan dozak, seme, ene semiak garaĩu zuazan guda-zelai oneik?

Nire zoruna zuazan aldi areĩan, nire etxeko atian etzuan iñungo aŕotzik ikusten.

Gerorantz, baña, aldijak aldatubaz, ene semiak be aldatuten asi zuazan. Abeŕi -maĩasuna epeldubaz yuaken, etxeko subaren berua, otziĩubaz...

Nabaŕa, nire ondotik uŕunduten asi zuan. Araba, be, aren bidiak-ziaŕ ibiliĩen asi zuan. Eta gero, izkuntzarañoko gustija laga yuen, eta gaztelaŕena aŕtu.

Ene izkuntza garbi-edeŕa baxen gaxua, bazteŕtuta geratu zuan: Bizkaya ta Gipuzkoa'ko mendi-aŕtietan bazteŕtuta.

Mendi-aŕtietako bakaŕtadian be, baña, jazaŕtuba ixan dot, eta gaztelereaj bide dduala, ilobijan noiz saŕtuko yagok. Euzkerea iliten ba-dok, baŕiz, ni be euzkereaz batera ilgo nok...

—Ez, ama, etzara ilgo. Geuk gaizkatuko zaĩugu.

—¿Zelan?

—Zeuk ixentau dauskuzuzan gaizka-bidiak-ziaŕ ibilijaz... Sabin Irakaslia'ren abeŕtzaletasuna Euzkadi gustira edatubaz.. Abeŕi-elia beste ele gustijen ganetik imiñijaz... Anai gustijei Jel-ikuŕinpera deĩubaz... Nabaŕa ta Araba baŕijen-baŕi euren benetako Abeŕi-Ama'ri begira imiñijaz... Euzkadi osuan abeŕtzaletubaz...

—Esan dokan gustijoi jadisten ba-dok, jaditxi, enok ilgo, ez. Bixiko nok, eta nigaz batera, bai nire seme-alaba kutuntxubak be.

Baña niri bixitza senduan emoteko, nire izkuntzearen beŕbizkundia biaŕezkua dok, izkuntza bako abeŕija, arima bako soña dok-eta.

—Esan dautzutan gustija jaditxiko dogu, ama. Eta oŕ atian Andoni'ri deika aurkitzen dan aŕotza, gauŕtik auŕera, bein be eztala etoŕiko, zin-egiten dautsut. 1876'gko. garilan 21'gaŕeneko lagirik eztogu biaŕ. Beraz, ama seme atzeŕi-zaliak ezaŕi eutzuben lagi ankeŕ ori, seme abeŕi -zaliak kenduko dautzube.

—Zinistuten deuat, Andertxu. Igandik beste gauzarik itxaron be ezin neiklan egin. I lango semiak yuazan abeŕija, eztok ilgo...

URIBITAŔTE'TAŔ IBON.

Iztueta'ren irarri bako idazlana

Idaztiñua atzalburubetan banandu ta atalduta dago. Atzalburuba baña goyan jaŕi biaŕian beyan dauka au da, lenengotan jaŕi biaŕian azkenian dauka. Ona emen atzalburu gustijen idazpurubak:

1) "Desde la nota antecedente hasta aquí son voces y frases selectas sacadas de autores vizcainos Olaechea Doctrina". (Fol. 10 vuelto, pag. 20.

2) "Hasta aquí de Cardaveraz. Astete en vizcaino, no usa de J ni de eufonías". (Fol. 22, pag. 43).

3) "Este es ensayo de "verbos dobles". Los que llevan + ni están averiguados". (Fol. 11, pag. 22).

4) "Hasta aquí uso del participio de pretérito determinado". (Fol. 12, pag. 24.

5) "Estos son relativos. Expresiones de Olaechea". (Folo 12, pag. 24.

6) "Añibarro, esculiburu del año 1802, trae todo cuanto contiene este último capítulo; esto es, desde la última raia hasta aquí". (Fol. 18, pag. 35).

Auŕeko idazpurubetatik auxe dakigu: berak azteŕtu leuzan idazlerik geyenak bizkaĩaŕak zirala: Olaetxea, Astete bizkayeraz, Añibaŕo, ta beste batzuk berak diñonetz.

Gairik geyenak, adibideŕik geyenak bizkayerazko idaztijetatik aŕturikuak dauz. Beste egunen baten gai onetzaz zegozer esango dogu.

¿Iztueta ezeren asmuetan ete-lebilan?

¿Idaztiñuau dagon letz argiĩaltzeko ete -leban?

Ona emen gaŕantzi andiko iĩaune bi. Eta oŕa oŕ geure erantzuna.

Iztueta idaztiren bat argiĩaltzeko asmuetan lebilala dirudi. Euzkerazko iru idaztiren egile ba-zan: Guipuzcoaco provinciaren condaira. Bere idazti gustijak euzkeraz idatzi lebazan. ¿Ez ete-zan bere asmuetarik edeŕena euzkeratzazko idaztiten bat argiĩaltzia? ¿Zai-ete? Ez-ete? Uaŕ eta itz-pilo gustijoik batu ta antolatzen zetako lebilan ba? ¿Ez-ete zan euzkereatzazko idaztija egiteko? Guketz bai.

Idaztiñuau baña dagon letz argiĩaltzeko ete-leban?

¡Bai zera! Idaztiño onetan dagozanak gero obeto jaŕteko leuzan uaŕak baño etzirala dirudi. Uaŕak baño eztira ixan be-ta. An-emen ezer uaŕgaŕi ba'leguan, esakun berezija idoroten ba'leban, pilatu egiten leban. ¿Zetarako? Gero-obeto jaŕirikuan-argiĩaltzeko noski.

Gure irakuŕliak idaztiño au zelan antolatuta dagon jakin dagijen bere lenengo oŕija oso-osuan jaŕiko dogu emen:

"Zuza, fogosidad; bey zuza, vaca alta.

Artara eguingo baneu, si me ensayase, si lo procurase.

Bein batac ta bein besteac izaten dogu, lo tenemos alternadamente.

Biciteco gozorik eztaucat, no tengo gusto de vivir.

Biotzean min artu eban, guichiago banan bere, sintió, aunque no fué cosa.

Sei papel auts aguindu, mandar tomar seis tomas de polvos.

gustu betecheagoan eguin, hacerlo con algún mayor gusto.

Testigu auŕez esan, decir delante de testigo.

Urteco ogui arguia, el pan y luz que se pone todo el año en la sepultura de alguno.

Zureaz eguiten dozu besteena, por lo tuyo computas, haces cuenta será lo de los otros.

Aste betean como illa betean, urte beĩean.

Diruac bear cituzana, aquel a quien se debían haber entregado los dineros.

Emon aldi baten emon, como "erabatera".

"Barre eguin bear leuke (sic) nigaiti, debiera burlarse de mi."

Gauŕkoz Iztueta euzkeltzalien ixendegijan jaŕi biaŕa dogu, len euzkel-idazlerik azkaŕen aŕtian jaŕten ba'leuguban be.

Pozik nago nerau be: euzkel-elizti ta euzkel-elizti-edestirako oňaŕi baŕi bat idoro dodalako.

AGAREL.

Arrats-beran
Urkiaga'tar Estepan
Lauaxeta
Euzko-olerki idazti txukuna. Pergaminozko ingiz eta azalkai dotorez. Gaur arte egin diran idaztijetan, ederrenatarrikua. Bost laurleko.
Verdes-Atxirika'ren etxian Bilbo'n

Zarautz'tik Getari'ra bidean

("UZTARO" irakurgaitik)

Ondartzaren andiko buruan, aizarteaan, aŕizko mailak daude goiko bidera igotzeko. Igobide oni egotzi diozkae oňak eta, Barbare donearen mendixkak dagin itzalpetik, Getari'rako bideari ekin diote.

Ixo, orde! Tink dagie gazte biak. Kaŕasi uŕatua, lenengoz; iskanbila ta oiuak, geroxeago, datortz portuondotik. Zuŕunbiloan dijoa jendea nasara ikusmiňak zirikatuki. Ara jo dute Balendin'ek eta Agustin'ek ere.

Erdi-biloizik ibiltzen dira udaburuan mutilak uretan plisti plasta. Atsegaŕi da, izan ere, egoaizeak bazteŕak eŕe ta kiskali zorian darabiltzkianetan, soña ezotuz, uretan murgil egitea. Igeregiteak ez du ezkuturik arientzat; naiz urpean arnas-eutsika, naiz atzeraka, naiz besoak igitu gabe, aŕainak bezain nagusi ibiltzen dira uginetan Ausardienak, beŕiz, ontzitegitik itxasora baŕuratzen dira iraupena ta indaŕa alkaŕekin neurtuz. Au dala-ta, bein baño geigotan izan dira ezbeaŕak.

Auŕeko egunean bezelaxe, mutiko bi, zengeagoka bizian, irten ziran portutik eta igerian ekin eta ekin, neuŕiz arago uŕutiratu. Konturatu orduo, itxasoarena zan bietan bat. Itxasoko azpi-indaŕaren iretsibeaŕak zeramakin oargabe eŕukaŕia. Bira egin eta itzulka asi zanean, ikusi ziozkan eriotzari agiňak begiz begi. Nola menderatu aizearen ufada? Nola gainditu itxasoaren azpi-indaŕa? Alpeŕikako jardunak oro nekatu ta auldu zuanean, jaurti zun kaŕasi estua. Uŕeratu zitzaion noizpait atzetik zijoakiona; ezin zezakion, ordea, laguntzarik eman. Alkaŕen ondoratu ziranean, batak besteari eutsi naiakin ondatu zorian zebiltzan biak. Alako batean, urpean ezkutatu zan bietan bat. Irtenaldi bi egin aŕen, irugaŕen sartualdian betiko ondatu zan mutil gizajoa.

Ikusleak zegizkien oiuetara, gizatalde ugaria bildu zan nasa-ezpañera. Ara jo zuen Balendin'ek eta Agustin'ek. Laŕi zebilen, ordurako, bigaŕena ere. Azkaŕ bear zun norbaiten laguntza, ondatuko ezpa'zan. Nor ausartu, ordea, alaingo aize zakaŕa buruzkatzen? Eriotzari arnasa ematea zan.

Txint batean neurtu zun Balendin kementsuak egin beaŕ zana. Erantzi soňekoa ta an botatzen du burua uretara. Goialderaño iritsi ziran soin astunak zabaldu zitun ur-zipirztiňak. Etzerabiltzkin besoak zaratatsu; baña bai eŕaz, bizkoŕ eta txaiko ebakitzen zula ura?

Len mutikoa agiri zan tokira eldu zaneko, etzan aren aŕastorik. Bigaŕen aldiz urperatua zan, nunbait. Biriak aal besteraño aizez beteaz gero, izurdeak bezela jauzi eginda, murgildu zan; eta batera ta bestera, itxaspiztien idurira, ixurkia usainduz ibili ondoren, ondatua besotik zeramakiala azaldu zan Balendin urgaňean. Ito -itxuran eta kordegabe zetoŕen mutikoa; baña, nolanaiere, gaizkatua zegon mutuŕaz ugiňen saĩetsa uŕatuz zijoakien, ordurako, bidera ontzitxo bat.

Onelako egite ausartsuen auŕean, aozabalka ta erditoteldurik erakusten du eŕi xeak eskaŕ ona. Oňak nasa-gaňean jaŕi zituaneko, aldraka inguratu zitzaizkon Balendin'i gizon eta umekondo. Danak esan nai zioten zerbait; danan nai zuten agurtu gazte bulartsua. Gogaitkaŕi zitzaion, ordea, aŕi ainbesteko itzjario txoliňa.

Otsegin zion bere lagunari ta, norabait joan beaŕa zutelako aitzakian, ixtilu aspergaŕi artatik aldendu ziran. Aŕantzale urtetsu bat uŕeratu zitzaion une artan bertan eta eskua biziro estutuz, esan zion: "Nere arikoa aiz, mutil. Iru bideŕ ibilia nauk itxaserdian ondatuta". Itz giar oriexek izan zitzaizkon Balendin'i atsegiňen.

Eta goizaldetik zekaŕen aldarte eŕea zerbait goxatu naiean, Agustin'ekin baĩean, Getari'ra abiatu zan.

Zarautz'tik artean uŕutiratu baño len, notin-aldra batekin egin zuen oztopo. "Ganduak lausotu al-zezkiak begiak, ala ez al-da Malentxo lagun-aldra oŕetan izketan datoŕena? Bai, bai; alaxe dek. Au nere zorigaiztoa!

Gauŕ goizean Inuŕitza'ko elizatxoan ikusi dedan zalduntxo emegizonakin zetoŕek, gaňera. Emeki ondoratzen zaiok—¡likitsa!—Doŕonsoro'ko alaba edeŕari. Onek, beŕiz—¡txoroak!—, ederesten dik. Au zorigaitza!"

Oldozkun oetxek darabiltzki Balendin'ek gogoan. Zatituko luke esku artean, zotza bezela, zalduntxo txalua. Erasoko lieke ukaldika bazteŕeko arkaitzai ere. Geroago ta miňagotzen zaio aldartea. Irugaŕen zastada zun egun artan bertan gaztearen biotzak. Ez izan, ordea, ezeŕ maite-jokoetan soin-indaŕa. Beste nolabaitako gaitasuna bear da joko oŕetan irabazteko.

卐 卐 卐

Ara emen Getari aipatua. Arkaitzaundi tinkoa du itxasaldetik bere egon nagiaren zaitzale erne. Ugartetxoaren bizkaŕean zutik dagon argi-toŕeak ziklpoe baten antza du, bekoki-erdian begi bakaŕa zirkinka dula.

Guda-ontzien biltoki izana da aintziña Getari'ko itxasbazteŕ babesa. Emendixek irten zan Elkano ausartsua lur osoari al-deren alde itzulbira egin zionean. Emen jaioak ziran itxasoan berdiňik etzuen ainbeste ontzigizon kementsu.

BAŔENSORO.

(Jaŕaitzeko.)

Araba'tik

XV

(Jaŕaipena)

Mezkiarabidea, 1794.
Otzaurte, 1749.
Olza, 1749, 1766, 1794.
Oreindakoizaena, 1766.
Oreindakoizena, 1794.
Ormaituŕi, 1766.
Oliba, 1760.
Oreisun, 1736.
Oreisunburua, 1736.
Ostaurtekazulo, 1781.
Osagelupresa, 1781.
Oribe, 1781.
Oŕaso, 1785.
Orlokaiza, 1785.
Paternina, 1759.
Paulomugaŕi, 1785, 1809.
San Adrian, 1749.
Saŕi, 1809.
Saroste, 1809.
Sarobaŕialdea, 1736.
Sansaran, 1736.
Saimendi, 1736.
Saŕostea, 1781.
Sorabaŕi, 1781, 1785.
Sorabaŕia, 1785.
Sorobaŕia, 1785.
Sansaranguti, 1785.
Uŕustiaŕatea, 1486.
Urbieta, 1486, 1785.
Urdantegikozila, 1766.
Ururkalua, 1766.
Toŕelaŕe, 1706, 1583
Trapubea, 1766.
Trapuazpia, 1766.
Uraldekomendia, 1766.
Urustibizkar, 1781.
Urkiola, 1781.
Uŕutegaňa, 1785.
Urki, 1785.
Zubizabal, 1809.
Zuŕizabal, 1781.
Zuŕiaundiarana 176[illegible]
Zainmendiarena, 1785.
Zapatari, 1760.

Soro batzuek bi izen zituzten. Bat zaŕa, bear baoa, eta bestea geroxeagokoa. Adibidez: Berokiagoikoegia, Isaspuru, Trapubea=Trapuazpia, Uŕategaňa=Albiategaňa, Txaraduigoŕia=Eguaberoki, Lubaŕi=Iturbasobaŕena, Azkonarzulueta=Laŕeluzebaŕena.

Izen batzuen ondotik bilatu izan oi det noizpeinka izenaren azalpena. Ona bat edo beste: Mugaŕimakur: "que quiere decir mojón en idioma vascongado".

Donejurgi "o San Jorge". Aŕizabala: "que significa piedra ancha". Jaulopeururkilua: "que quiere decir donde se juntan las dos aguas". Arizbeasa: "que quiere decir robredo claro".

Bilatu ditut baitare euskal-itz batzuek or emen agirietan. "Por renque o beceros", "piedra arenaza", "buŕuzayes o mayorales", "Ovejas o iraskos", "ondarras o residuos".

Ikusten danez ugari dira alderdi auetan euskal-izenak. Eztira danak Zalduendokoak izan, Zalduendo baranokoak baizik. Dana-dala, arkiboetan zerbait arakatuta ainbeste izen edeŕ bila al-izan ba-degu, zenbat ez genuke idoroko Araba'ko udal -eliz-arkiboak aŕeta aundiz begiratuko ba -genituzke.

Besterik ezpada ere izenak ingi zaŕetan dauden bezelaxe argitaratu izpaŕingian. Langaiak eman euskera arazoetan jakintsu diranei. Jakintsuak zeinduko lituzteke izen aiek, izkelgiai buruz; jakintsuak arakatu euskal-itzen laguntzaz eusko-leňuen alkaŕen arteko artu-emanak. Eta ortik ere eusko-edestiarentzat argitasunik bai -letorke. Argi-izpi guztiak bildu beaŕean gaude bada euskotaŕok gure edestia, gure asabak "egin" ziguten edestia, guk "idazteko".

Pozik ikusi degu EUZKADI'ontan ile onen 11'n Bilbao'taŕ Pantzeska jaunak argitaratu dituan "Zigoitia ta inguruko toki-izenak". Or dago ainbeste apaiz ta idazkarientzako lana. Egin lezatekenak bear bezela erantzungo ba-duteke, izen pilo gaitza bilduko litzake. Eta Eleizalde'taŕ Koldobika jaunak asi zuan lanari bukaera edeŕa eman ere emango litzaioke.

MIKELATS.

Errijetatik

KORTEZUBI

EUZKEL-IXENA.—Erizketa eta Agiŕe'taŕ Simon eta Aŕiaga eta Mandaluniz'taŕ Paule senaŕ-emaztiak, seme edeŕ bat ixan dabe, eta Sabin euzkel-ixen begikuaz ugutzau.

Aĩabitxi-amabitxijak, Ortuzaŕ'taŕ Gergori ta Mandaluniz'taŕ Augustiňe ixan dira. Zorijonak.

DABILTZANAK.— Bilbao'tik etoŕiĩa emen aguŕtu dogu Aurtenetxea'taŕ Domeke, ta bere seme bijak. Madariaga'taŕ Ebaiste be aguŕtu dogu.

GEXORIK. — Aberasturi'taŕ Lander Elexakuak aŕtuta naiko txaŕto auŕkitzen da. Ainbat lenen osatutia opa dautsagu. Solaegi'taŕ Miren emakume zintzua be, naikua makalduta auŕkitzen da. Oneri be gurari bardiňa dautsagu.

MIN AŔTUTA.—Gure adizkidia dan Muzatadi'taŕ Perderika madari-ganetik jausiĩa min-aŕtuta auŕkiĩu ixan da. Baña crain, zorijonez, lanian asiĩa dago.

Eŕi onetako "Gastetxu batek" idatziĩa, "Ekin" asterokuan irakuŕi gendun. Axangiz'ko txaunburuba il zala.

Axangiz'ko txaunburuba zana, ezaguna geban. Bera ixan, zan, ba, Kortezubi'ko Batzoki-Askunde egunian ikuŕiňa onetsi ebana, eta Axangiz'ko Batzokija zabaldu zanian ango ikuŕiňa onestu ebana be. (Goyan bego).

ENTZUNIKUA.— Zorijonak Muxika 'ko txaunburu jaunari ta bere anaya zintzuari, gotzain jauna Muxika'ra eldu zanian, beste eŕijetan baño aŕera obia Muxika'n egin eutsela entzun dogu-ta.

Kortezubi'ra be eldu zan gure gotzain aguŕgaŕija. Baña emen euzeutsen Muxika'n egin ixan eutselako aŕera-idazkunik iñun imiñi.

Ni gastetxuba nintzala, gure zoritxaŕeko eŕi onetzaz lekaide batek esaniko esakun baŕagaŕi auxe gomutetan yat: "Au eztok Kortezubi, inpernu-zubi baño".

Esakun onetatik, bakotxak berak gura daben zatija aŕtu dagijala.

GORA BETI.

Uaŕa.—Zeure gaurko idazkiĩik, zatitxu bat, kendu-egin dogu. Zu idazle ugaritxuba zara, ba, ta luzatuten asten zaranian, zure adaŕak "Gora duaz beti". Eta goregi duazan adaŕtxubak, iñusi-egin biaŕ. Ibon.

Logroño'ko izparrak

ORTUZAR'TAŔ IMANOL.—Logroño 'ko izpaŕ-saletan ainbat bidaŕ aĩatu ixan dogun jaupari ezagunak alde egin dausku emen alboan daukogun Oyon arabaŕ uritxotik Bizkai'ko Algorta itsas - uri atsegintsura.

Zoŕtzi uŕte andi bere jayoteŕi kuĩun Elantxobe'tik uŕun, Ebro ibai-zabalaren mugan, euzkotaŕ-erdelduna, baño ezdagon eŕijan, euzko-bijotz oso-osoaz Jaungoikua 'ren legediko agindubak irakasten ain zuŕ, ain zuzen, ain zintzo, ain gogotsu ta ain maiteki alegindu ixan dan abade aguŕgaŕijaren inguru onetatik aldendutiak saminĩasun andija sortu dau Logroño'ko euzkotaŕen aŕtian, eta atsekabe itzelaz lotu gauz bera ain maĩe geban abeŕtzale gustijak.

¡Tamal ixatekua da, ixan be, ain gixon ona, ain gixon argija, ain gixon maiĩekoŕa, ain jaupari ereďukoŕa ain euzkeltzale zintzoa, ain euzkotaŕ osoa, ain begiko geban abeŕkide goragaŕija inguru iĩun onetatik betiko aldedu yakula iruntxi biaŕa ixatia!

Uste-bako aldundute onek, ain min aundija emon dausku ze, ziňestu biaŕak, be, zeregiňak daukoz, gero, oiĩura geban lez uŕengo Oyon uritxora guazanian ezdogula Ortuzaŕ jaunaren esku-txiki leun-leuna gogotsu ta anai-maĩasun senduaz estututeko erarik ixango; ezdogula jaupari aguŕgaŕijaren espanetatik alako mintzaldi samuŕ, gaŕantzitsu ta onurakoŕik entzuteko aukerarik ixango; ezdogula abeŕkide jakiĩunaren onu (konseju) edeŕik aŕtuko; eta azkenik... (¡¡tamala, benetan!! uŕengo Oyon'ra guazanian ezdogula arabaŕ-uritxo aŕtan iñogaz euzkeraz itz bat be esan al-ixateko zoririk ixango..

¡Aguŕ, Ortuzaŕ'taŕ Imanol maiĩagaŕija! ¡Aguŕ, jaupari agurgaŕija! ¡Aguŕ, euzkotaŕ anďija!

Jauna'k bemotsu urte on askotarako osasun sendo-sendoa zeure adimen argi oŕegaz maiĩaro ta gogotsu oin aŕte lez, auŕerantz be, eten-barik jaŕai dagixuntzat Jaungoikua ta Abeŕija'gazko biaŕkunak betetan.

Olan opa dautsu, bijotzez.

ZELETA.

Segalarien dema Andoain'en

Il onen 28'an datoŕen igandean zortzi "Etxebeŕieta" ostiko zelayan belar ebakitze dema bat izango da.

Segalari oyek izango dira neurtuko diradenak Ernani'ko Erdozio'taŕ Iñaki emengo Aldasoro'taŕ Ugutza'en auŕka.

Bertan jokatzen dituzte bina mila eŕial, zeňok mila lauŕleko jaso.

Demari asiera emango zayo goizeko amar terdietan, zayua izango da ia bi orduan seňek belaŕ geyago ebaki.

Inguruetako baseŕitaŕen aŕtian zaletasun aundija sortu da bera ikusteko.

KIROLTZALE.

GERNIKA-LUNO

Aguŕ irakuŕle maĩiak, baŕiro natoŕixube neure izpaŕ txiro oneik idazteta luzarotxu idatzi-barik egonda gero, gaiaguŕ bategaz asikeria emoten deutsak, ibuŕ eta saŕi idazteko asmuagaz.

MIREN'EN ALABAK GAZTEIZ 'ERA.—Datoŕen igandean (J. 1.) jua dira Miren'en alabak Gazteiz'era beŕoztaŕanta ingeru. Au dala-ta iluntzi gus jetan euzkerazko abesti edeŕak entzu doguz: abesti askoren aŕtian "Txeru" e "Gernika'ko Arbola" iru abotsetara abestuten dabe, onek bai gauzak entzutekua ondo ibili Gazteiz-aldian.

IBILERAKIA.—Gauŕ urten dabe Eibarko-ikastolako gastetxubak ibilaldia egiten; ondo ibiliko dirala uste dogu.

GOTZAIN JAUNA.—Igaro dan astelenian etoŕi zan Gotzain jauna uri ontara umiek sendatzu edo conpirmetzaume asko batu zirean, albo-erijetako umiek sendatzu ta gero, larunbat goxeko seiretako jaupean abestuten diren abesti edeŕak entzuten geratu, zan. Atzegin andija ixan eban ain abesti poliĩak eta edeŕak entzu ebazanian. Gero umiek eta eben eta onek be edeŕto abestu eben. Zoritjonak ba abeslariĩai eta batez-be aita Goikoetxeari.

JAYOTZA.— Uri-Buru-Batzaŕeko berukibe dan Lauzirika'taŕ Joseba'k seme edeŕ bat ixan dau eta Iñaki ixen edeŕ ipiñi dautse; umien besoetakoak Carmen Calvo amuma eta Malax-etxebaŕia'taŕ Kepa aitaren osabia eta ugutzau eben jauparija Markoerkiaga'taŕ Perdiňaŕen lengusua. Baĩa be Lauzirika'taŕ Zakaŕi'k beste gudari bat ixen dau eta oneri ie Josu Andoni Gabin ixen poliĩak ipiñi deutsez; umien besoetakoak Zabaleta'taŕ Gabin eta Iturbe'taŕ Miren izan dira. Zorijonak ba bijori.

AGUŔTU. — Aspalditxuban kanpuan ixan da pozik aguŕtu dogu Isusi'taŕ Inokentzi eta Baŕenetxea'taŕ Terese. Ondo etoŕijak.

ELEIZ-ONDO.
E. A. B.

MAÑARIA

MIREN-ALABAK.—Goiz ta aŕatsaldetan eiizkixun berezijak egiňaz, lengo igandeko ospatu genduzan ileroko geure elizkixunak.

EZBIAŔA.—Agiŕe'taŕ Josu mutil gaztetxua, igaziriko larunbatez "Asko" aldatzian belbil (auto batek zapalduta txartu zauriĩu zan. Lenengo osakuntzia emen eginda gero Bilbao'ko gexo-etxera eroan eben. Gixajua! Mutil-au, Otxandiano'tik etoŕirikua da; ta emen bere aŕebiarenian bixi ixan da. Osatuko al-da arin.

ERIJOTZA.—Igandez il zan Bilbao'ko Ortuzar'taŕ Martiňe andera, eŕi ortako alabia. "Pelipa josla,,'ren alabia. Jaunak Zeruan euki begi. Sendijari atsekabian lagun gayakez.

AZTERKETAK.—Emeko eskola-umiak, urtero egin oi-diĩubezan azterketak larunbat aŕatsaldez egin ebezan. Eta azterketa-ostian, irakaslemiak, beti lez, "esu-bieŕen" erakusketa ipini eban, neskatuen lantxuak eŕiko jentiak ikusi egixazan. Gure neskatuen esku-bieŕak geuk atsegin ixan yakuzan; gauza edeŕik asko txukunkiro egin dabez-ta. Au dala zoritjonak neskato begikueri, ta Ariznabaŕeta 'taŕ Atanase euroen irakasleme onari batez be.

JUAN-ETOŔIJAK.—Santurtze'ra juan ziran Subiñaz'taŕ Jone emakume zintzua ta Ariznabaŕeta'taŕ Atanase irakaslemia.

Zaldibar'era Untzalu'taŕ Eŕosale ta Bitore emakume begikuak.

—Lengo astian etoŕi ziran udaldiko igaroten Kamiruaga'taŕ Kastor eta Basili anayak eta Madariaga'taŕ Nikase andera ona. Ondo etoŕijak.

"LAUAXETA,,'RI.—Zorijonak "Aŕatu -Beran" ixenagaz argiĩaldu dozun oleŕiko -liburu edeŕ eta txukunagaĩik. ¡Ori Jel -aldez zintzo lana egiĩia!

JAZORIKUA.—Beňola, emeko mutil alpeŕ batek, Ixurtza'ko solo baten layetan ebilan beste alpeŕ bateri esan eutson.

—Oŕaĩik be bieŕien abil...!

—Bai; txantxetan-benetan ezkondu nai txuan bai... ta... oin pamelije mantenidu teko bieŕa (lana) egin biaŕ. Iŕi-baŕez erantzun eutson.

—Oixe yauk, ba, mutil, oixe yauk be... Ez txantxetan eta ez benetan, ni beingoan iñok enayok aŕapauko...

MAÑARIKO.

Dr. R. Aranburu
AZALEKO SENDAGILEA
Egunero 11-1, 4-7.
FUEROS, 5, tercero. — DONOSTIA

Eskera
Euskeltzaleen Orratza
Lko. BAT
Saltzalientzat
Saneurri bereziak
ARRIETA ATXIZALE
Legazpi, 10'an. - Urrut. 13.777. - Donosti

IŔATIZKŇIAK
Otsa eta Aretxaga
Iŕatizkiňak, leungalubak, autontzijak eta gustiĩariko tximista-gayak saldu ta atondu ten dira.
TXIMISTA - EZAŔGINTZEAK
Sonbrereria, 5'gn. Bilbao, 18.881'gn urutizkiňa.